

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen 4 zenbakiko udal ordenantza fiskalaren aldaketa

Udalbatzak 2024ko irailaren 26ko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespena ematea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen 4 zenbakiko ordenantza fiskalaren aldaketari (espediente zenbakia: 2024/532). Erabaki hori 2024ko urriaren 4ko ALHAOn (113. zk.) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testuategina onesten duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

“UDALAREN 4. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Amurrioko Udalak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 19.2.a) artikuluan eta uztailaren 19ko 45/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz.

Zerga hau zuzeneko zerga da.

2. artikulua

Ordenantza hau Amurrioko udalerrin osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Zerga egitatea da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza lizentzia, lizentzia hori lortu edo ez, edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea edo aurretiazko komunikazioa egitea, betiere lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Amurrioko Udalarin badagokio.

Besteak beste, honako hauek daude zergapean:

- Oin berriko eraikin eta instalazio mota guztiak eraikitzeko obrak.
- Lehendik dauden mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioren egiturari eragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
- Lehendik dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoko itxura aldatzeko obrak.

5. Eraikinen barruko taxutzea aldatzeko obrak, beraien erabilera gorabehera.
6. Behin-behinekoak diren obrak.
7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
8. Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.
9. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienetan izan ezik.
10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.
11. Bide publikotik ikus daitezkeen propagandako kartelak ipintzeko obrak.
12. Ahalmen ekonomikoa agerian jartzen duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eskatzen duten obra, eraikuntza eta instalazio guztiak, baldin eta obra lizentzia edo hirigintzako lizentzia behar badute.

4. artikulua

1. Ez daude zergapean udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntzak, obrak eta instalazioak, baldin eta obraren jabea udala bera bada.
2. Zerga honetatik salbuetsita daude:
 - a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin-uretako saneamenduak eraikitzeke badira, erakunde autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan zein mantentzekoak izan.
 - b) Arabako Lurralde Historikoko kontzejuen jabetzako eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta helburua herritarren zerbitzua edo erabilera bada.
 - c) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 4. artikulua 1. paragrafoaren k) apartatua jasotako salbuespena aplikatu ahal zaien ondasunetan eraikuntzak, instalazioak eta obrak egitea.
 - d) Lehendik dauden eraikin edo eraikuntzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko egiten diren obrak edo eraikuntzak.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3 apartatua zehazten diren entitateak, bai eta testamentu ahalmen baten edo usufruktu ahaltsu baten faltan gauzatzeke dauden jaraunspenak ere, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabeak badira, horiek egiten diren eraikinaren jabe izan ala ez.
2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.

6. artikulua

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeko subjektu pasibotzat joko dira horietarako lizentziak eskatu dituztenak, erantzukizunpeko adierazpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak, edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.
2. Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

IV. ZERGA OINARRIA, KUOTA ETA SORTZAPENA

7. artikulua

1. Zerga oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreala eta benetakoa da.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreala eta benetakoa gauzatze materialaren kostua da. Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga eta araubide berezietako berezko beste antzeko zerga batzuk, ez eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak ere, ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

8. artikulua

Zerga honen kuota kalkulatzeko zerga oinarriari karga tasa aplikatu behar zaio.

Karga tasa ehuneko 5 izango da.

9. artikulua

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta obra lizentzia eskuratu gabe eduki. Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia ematean likidatuko da zerga.

10. artikulua

Nahitaezko lizentzia ematen denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean, edota oraindik lizentzia eskatu, eman edo ukatu ez bada edo adierazpen-komunikazioak aurkeztu ez badira eta hala ere eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko likidazioa egingo da eta zerga oinarria zehaztuko da, interesa dutenek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsita badago; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, exekuzio proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

11. artikulua

Behin lizentzia emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera. Lizentzia ukatuz gero, zergaren zenbatekoa itzuliko da.

12. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita eta horien kostu erreala eta benetakoa kontuan hartuta, Amurrioko Udalak, beharrezkoa bada, behin-behineko zerga oinarria aldatu eta likidazio osagarria egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko dio, edo, hala badagokio, itzuli.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obraren behin-behineko onespena eman ondorengo hilean, inguruabar horren eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu efektiboaren adierazpena aurkeztuko da, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin batera.

13. artikulua

Zergaren likidaziorako, ondorio berak edukiko dituzte administrazio isiltasun positiboaren bidez ematen diren lizentziek eta berariaz ematen diren lizentziek.

14. artikulua

Amurrioko Udalak zerga hau autolikidazio bidez ordaintzeko eska dezake, eta hori nahitaezko lizentzia ematean egingo da.

15. artikulua

Lizentzia baten titularrak baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, Amurrioko Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du, baimena eman zenetik 6 hilabeteko epean.

16. artikulua

Lizentzia iraungitakoan, Amurrioko Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetuko du, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak lizentzia ematen badio.

17. artikulua

Ehuneko 95eko hobaria egongo da zerga kuotan, gizarte inguruabarrak (esaterako, aparteko fenomeno atmosferikoek sortutakoak) edo kultura, historia eta arte inguruabarrak tarteko, udal interes edo erabilera bereziko deklaratura dauden obrentzat, edo deklarazio hori justifikatzen duen enplegu sustapenekoentzat.

Zergaren kuotaren ehuneko 20ko hobaria ezartzen da sustapen pribatuko edo publikoko babes ofizialeko etxebizitzan oin berriko eraikuntzen kasuan. Inola ere ez zaie aplikatuko etxebizitza babestuak eraberritzeko, aldatzeko edo birgaitzeko obrei, baldin eta etxebizitza horiek babes ofizialeko araubidearen pean eraikitzeke emandako hirigintza lizentzian jasota ez badaude.

Apartatu honetan araututako hobariak bateraezinak izango dira elkarren artean. Hobari bat baino gehiago izateko baldintzak betez gero, erabiltzaileari onurarik handiena eragingo diona baino ez da aplikatuko.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ehuneko 5eko zerga tasa berria 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera eskatutako lizentziei aplikatuko zaie.

VI. AZKEN XEDAPENA

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen 4 zenbakiko udal ordenantza fiskalak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra eta hala jarraituko du izaten harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte."

Amurrio, 2024ko azaroaren 25a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA